

» DISKOA

Natura eta askatasuna hainbat aurpegitan



Iker Barandiaran
@IkerBarandiara

Bada esanguratsua ibilbide luze eta sendoa duen musikari eta sortzaile donostiarrak bere laugarren lan luzea autoekoiztu izana. Nahiz eta argi gera bedi gaur egun auto-ekoizpena askotan ez dela gabezia baten ondorio, hautu pertsonala baizik. Gauzak honela, auto-ekoizpenak badu arriskutik eta norberak beretik eman beharretik; eta San Sebastianek, zuhaitzek bezala, ez du beldurrik. Barruan daramana askatzea da bere xedea. Beste talde batzuekin ibilia da eta azken hamarkada luzean bere proiektu pertsonalekin ausarki abiarazten da naturatik plazara. Hala, beti iruditu zait bere eskaintza dela folkjegia –lurrari lotutakoarock-zaleentzat eta, aldiz, folka maite duteentzat rockeroegia. Izan ere, ahots berezia eta erregistro aberatsa dauka, sustraiak oso presente ditu beti eta, horrekin batera, arima askea erabat.

2004an eta 2009an hurrenez hurren kaleratutako *Orai* (No-CD records) eta *Ospela* (Elkar) euskal folkari eta lurrari lotuta zeuden hein batean eta haiei zor dizkiegu gure kantagintzan zizelkatutako *Atzo naiz*-en gisako perlak. Horien ostean, piztia berpiztu eta *Erraiak* (Elkar, 2012) kaleratu zuen rock indartsuarekin eta beste kultura erritmikoagoekin blaituta erabat. Piztiaren bila areto izerditsuenetaraino amildu zen.

Orain berriro dator bueltan naturaz eta horeen magiaz zipriztindutako lan berriarekin, eta beste behin kamaleoniko gorpuztu zaigu, bat baino gehiago bizi direlako bere baitan. *Nereari* basoari erreparatzen dion folk goxoa

Zuhaitzak ez du beldurrik

XABI SAN SEBASTIAN

Belarri, 2017



erditu zen, baina taldearen indarraz rock amerikar bilakatu da. *Zuhaitza* kantuak balio du San Sebastianen abesteko sentimendua gure egiteko. *Haizea gozatzen* handia da, Neil Youngen kadentzia eta malenkonian jaita eta indioen tankeran erotuta post-rock distorsionatuan biderkatuta. *Basamortu epel* zine-matografikoa da erabat, kabaretero-rockeroa. *Itsaso gureak* marinelen omenez idatzitako eresia, rock gihartsu, itsaskor eta bizia. *Ametza*-k asko du San Sebastianen umoretik, probokaziotik eta 70eko hamarkadako rocketik. *Ikusezina*, aldiz, akustikoan biluztean datza. *Esk* erromeriatarako pieza transgresorea da. *Atea*, berriz, *hillbilly*-a, 70eko rocka, Iparraldeko kantagintza eta Afrikakoa batzeko ariketa. Eta, postre gisa, sorpresa goxoa. ■

Xabi San Sebastian
musikari eta
abeslaria
(Donostia, 1967).

